



Arartekoaren 2015R-1231-14 ebazpena, 2015eko apirilaren 21ekoa. Horren bidez, Lasarte-Oriako Udalari gomendatzen zaio egokiak diren neurriak har ditzala (...) tabernak eragiten dituen eragozpenak ekiditeko, eta jarduera horri eska diezaiola ingurumenaren arloko legea bete dezan.

Aurrekariak

1. Lasarte-Oriako herritar batek erakunde honen aurrean salatu du Udalak ez duela inolako esku-hartzerik egin bera bizi den eraikinaren etxabeen dagoen ostalaritzako establezimendutik eratorritako irregulartasun etengabeen aurrean.

Zehazki, interesdunak adierazi du 2009tik hainbat erreklamazio aurkeztu dituela zarata-eragozpen larriak direla-eta. Honako hauek dira eragozpen horien eragileak: **lokaleko musika; ahotsak; mahaiak eta aulkiak arrastaka eramatea, eta itxiera-ordutegia behin eta berriro ez betetzea.** Orain arte ez du konponbide egokirik jaso.

2. Lasarte-Oriako Udalak emandako administrazio-espeditarearen kopian, kexagileak bezala ondorengo alderdiak egiaztatu ahal izan ditugu:
3. Printzipioz, jarduera behar den moduan legeztatu zen; ondorioz, nahitaezko lizentziak ditu: bai instalazio-lizentzia, bai irekiera-lizentzia. **2001eko martxoaren 27ko Alkatetza Dekretuaren bidez**, 2. taldeko jardueraren taberna funtzionamendua baimendu zen.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoen Departamentuak egokia zen **jardueraren kalifikazio-txostena** eman zuen, eta txosten horretan zehazten ziren aipatutako establezimenduak hartu beharreko neurri zuzentzaileak. Hain zuzen ere, 4. neurri zuzentzailean adierazten zen *"El establecimiento deberá de disponer de un aislamiento acústico suficiente de manera que no sobrepasen los 40 la actividad posee una insonorización de la totalidad del local a fin de que no se sobrepasen los 40 y 30 dB(A) en nivel continuo equivalente en Leq 60s, ni los 45 y 35 dB(A) medidos como L máx. en los dormitorios, cocinas y salas de estar de las viviendas más próximas o en locales contiguos, a partir de las 8 y 22 horas."*

Gainera, "se prohíbe el uso de aparatos musicales, excepto radio, televisión e hilo musical, los cuales estarán anclados de modo que no sobrepasen los 75DB(A) en cualquier punto del local."

4. Dena dela, **2009ko uztailaren 7ko alkatearen ebazpenaren bidez**, Lasarte-Oriako Udalak adierazi zuen jakitun zegoela irekiera-lizentzia eskualdatu egin zela lizentzia hori lagapen-hartzaileak subrogazio bidez eman zueneko baldintza beretan (beteta egon ala ez), baldintzok betetzeko betebeharra izanik.





5. Jardueratik eratorritako zarata-eragozpenen gainean jasotako kexen ondorioz (udaleko zerbitzu teknikoek egiaztatu zituzten zarata horiek), **2010eko azaroaren 15eko alkatearen ebazpenaren bidez**, honako hau ezarri zen kautelazko neurri gisa: *"La inutilización o desactivación de los equipos audiovisuales existentes en el local, hasta tanto se proceda al tarado de los mismos y a su comprobación por parte de los técnicos municipales."*
6. **2011ko otsailaren 9an**, udaleko zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita bat egin zioten jarduerari, ikus-entzunezko ekipamenduak murriztu ote ziren egiaztatzeko helburuarekin.

Hala ere, ebazpenean adierazitakoaz gain, aurretik baimendutakoen ezberdinak diren soinu-aparatuek funtzionatzen jarraitzen dute. Edonola ere, honako hau adierazi da: *"tan sólo se eliminan los altavoces de los dos televisores existentes en la actividad y que en el resto de aparatos sonoros se requiere la colocación de un limitador. Si bien en el momento de inspección el resto de aparatos sonoros no se encuentran en funcionamiento al no haberse fijado aún el nivel del limitador."*

7. Horrenbestez, **2011ko martxoaren 9ko alkatearen ebazpenaren bidez**, jardueraren arduradunari honako neurri hauek hartzea eskatu zitzaion:
- Jarduerako soinu-zko edota ikus-entzunezko ekipamenduetan jarritako mugagailua 75 dB(A)-tan ezarri zezala (bere lizentziaren arabera baimendutako gehienekoa). Aparatuak egoki funtzionatzen zuen unean, udalari jakinarazi behar zion, bertako zerbitzu teknikoek zegokion egiaztapena egin zezaten, eta, ondoren, lokaleko soinu-aparatuak zigilatu zitzaizkien, aparailu horiek baimendutako gehieneko soinu-mailak ez gainditzeko helburuarekin.
 - Eskumeneko teknikariak edota enpresa berezituak sinatutako ziurtagiria aurkeztu zezala, zeinaren bidez ziurtatzen zen bai mugagailuaren funtzionamendu zuzena, bai legeak baimendutako gehieneko soinu-mailak errespetatzen zirela lokalaren gain-gaineko etxebizitzan.
 - Lokalaren barruan zeuden mahai eta aulki guztietan takoak jarri zitzala ere eskatu zitzaion, beroriek arrastatzen zirenean ateratzen zen zarata leuntzeko eta aldamenetako etxebizitzetara eragozpenak ekiditeko xedearekin.
 - Emandako epemuga amaitu ostean, aipatutako jarduera ikuskatuko zela ohartarazi zitzaion, aurretik aipatutakoak bete zirela egiaztatzeko asmoz. Horrela egin ezean, zehapen-espeditentari hasiera emango zitzaion, lokala ixtera iristeraino ere.
8. **Aurkeztutako erreklamazio berriak kontuan hartuta, 2011ko martxoaren 31ko jakinarazpenaren bidez**, interesdunei jakinarazi zitzaizkien ikuskapen sonometrikoa





egingo zela ukitutako etxebizitzan, jardueran zeuden ganberak sortzen zuten zarata egiaztatzeko helburuarekin.

9. **2011ko maiatzaren 9ko alkatearen dekretuaren bidez**, adierazten zen mugatzailea ezarri zela, eta mahaietan eta aukietan takoak jarri zirela. Alabaina, aurkezteke geratzen zen eskumeneko teknikariak edota enpresa berezituak sinatutako ziurtagiria (aurretik eskatutakoa).

Horregatik, jardueraren sustatzaileari jakinarazi zitzaion lokala laster bisitatuko zutela berriz ere, aurreko eskaerak betetzen zirela egiaztatzeko; horrez gain, berriz eskatu zitzaion eskumeneko teknikariak sinatutako ziurtagiria aurkeztea, aurkeztu gabe zegoelako.

Ohartarazi egin zitzaion aurretik eskatutakoak bete ezean, egokiak ziren neurriak hartuko zirela.

10. Aurreikusita zeuden neurketa sonometrikoak egin ostean (ukitutako etxebizitzan zein jardueraren lokalean), egiaztatu ahal izan zen zaraketako parte bat eraikineko galdara-gelako motorretatik zetorrela. Ondorioz, arazo hori jabeekideen erkidegoarekin konpondu beharrekoa zen.

Beste ikuskapen-bisita bat egin ostean, 2011ko maiatzaren 17an, mugatzailearen ziurtagiria aurkeztu zela egiaztatu ahal izan zen, eta, printzipioz, ondo funtzionatzen zuela. Horrenbestez, aurretiko eskaerak beteta zeudela ikusita, **2011ko maiatzaren 25eko alkatearen ebazpenaren bidez**, bertan behera utzi zen aurretiaz ezarritako kautelazko neurria, eta berriro baimendu zen kalifikazio-txostenean azaldutako musika-aparatuetatik bestelakoak ziren aparatuak erabiltzea.

Alabaina, auzokideak ez ziren ados azaldu azken ebazpen horretan hartutako erabakiekin, uste baitzuten ingurumenaren arloko araudia gainditzen zutela.

11. Ukitutako auzokideek aurkeztutako erreklamazio berrien aurrean, neurketak egin ziren lokalean. Neurketa horietatik honako hau ondorioztatu zen: **59 dB(A)-ko isolamendu gordina zuela aireko zaratarekiko eta immisioko mugako balioek errespetatu egiten zutela nahitaezko lizentzian baimentzen ziren gehieneko balioak.**

Dena dela, proba egitearen ardura zeukan udaleko teknikariak honakoa adierazi zuen bere txostenean: *"Que existe una transmisión estructural, por lo que es conveniente adoptar diversas medidas complementarias con el fin de evitar molestias a las viviendas más próximas."*

Aldi berean, nahitaezkoa da azpimarratzea **neurketa-txosten**ean honako oharpen hauek egin zirela:



Lehenik eta behin, aipatutako neurketa-txosteneko 14. orrialdean (8. puntu), aireko zaratarekiko isolamendua eta talka-zarataren immisioa neurtzetik eskuratutako emaitzen gainean honako oharpen hauek egin ziren:

"8.2.1. Observaciones

El ensayo realizado presenta desviación a la Norma UNE-EN ISO 140-7:1999 en cuanto a ubicación de máquina de impactos, por lo que los resultados obtenidos, no se encuentran amparados bajo alcance de acreditación.

8.3. Observaciones

El ensayo a ruido aéreo e impacto realizado, presenta límites de la medida, ya que el nivel de ruido de fondo existente en algunas frecuencias presentan diferencias inferiores a 6 dB entre el nivel inmisión y de fondo, por lo que el índice DnT,A presentado corresponde al valor teórico mínimo y el valor $L'nT,A$ valor teórico máximo.

Los resultados presentados en este informe sólo son validos para las muestras evaluadas."

Soinu-immisioari buruz egindako azterketaren gainean honako oharpen hauek egin ziren:

"De las medidas de inmisión realizadas se concluye, que si bien en las condiciones en las que se encontraba la instalación en el momento de realizar las mediciones el nivel sonoro en el interior de la vivienda no supera los valores límite establecidos por la Normativa vigente, se debe de considerar que el nivel sonoro máximo no alcanzaba los 75 dB(A) que establece el Decreto de Gobierno Vasco 171/85 y que en dichas condiciones el nivel de recepción en la vivienda se sitúa al límite de su cumplimiento, por lo que en condiciones de uso al nivel máximo que establece el citado Decreto, en consecuencia con lo analizado, pueden superar dichos valores límite, máxime cuando las condiciones de limitación que dispone el aparato no corresponden a un sistema electrónico que garantiza la estabilidad del sistema."

Bai **talka-makinarekin** egindako probako emaitzetatik, bai **soinu-immisioaren** azterketako emaitzetatik zera egiaztatu ahal izan zen: lokaleko jardueraren berezko egitekoak (**altzariak lekualdatzea, biltegiko eta garbiketako zereginak, edota soinuaren kasuan, bereziki behe-soinuen gamak**) gauzatzen ziren bitartean, egituraren bidez igortzen ziren zaratek **etxebizitzari era nabarian eragin ahal ziotela**.

Egindako azterketa kontuan izanda, honako gomendio hauek eman ziren aditzera:



- Sonografo erregistratzaile bat jartzea, jardueraren soinu-maila erregistratzea ahalbidetuko zuena.
- Bibrazioen aurkako elementuak jartzea bozgorailuak zeuden guneeetan.
- Bibrazioen aurkako elementuak jartzea kupelak, kutxak eta abarrak kokatzeko guneeetan.
- Altzarietan gomazko takoak mantentzea.

12. Egindako probetatik ateratako emaitzen ondorioz, **2011ko abenduaren 28ko ebazpenaren bidez**, honako hau eskatu zen:

- *Se advierte al responsable de la actividad que se respeten los valores de inmisión en a la vivienda inmediatamente superior, que se encuentran dentro de los límites máximos permitidos en la medida correctora 4ª del Informe sobre Calificación y Medidas Correctoras emitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa.*
- *En el plazo próximo de quince días (15), debe adoptar medidas que se reseña a continuación con el fin de evitar molestias a las viviendas más próximas:*
 - *“Deberá colocar elementos antivibratorios en todos los altavoces instalados en el local.*
 - *Deberá colocar un freno en la puerta de entrada además de ajustar el muelle existente a fin de evitar ruido de impacto al cerrarla.”*
- *Una vez haya dado cumplimiento a lo requerido en el apartado segundo lo comunique por escrito a este Ayuntamiento con el fin de que los servicios técnicos municipales comprueben su cumplimiento.*
- *Las labores de limpieza, almacenaje, movimiento de barriles, etc., deben realizarse en horario diurno, de 8:00 a 22:00 horas, con el fin de evitar posibles transmisiones estructurales.”*

Hala ere, ez zen eskatu sonografo erregistratzailea jartzetik, aurreko neurketa-txostenean gomendatzen zena.

13. 2011ko abenduaren 27an, udaleko zerbitzu teknikoek lokala ikuskatu zuten, eta egiaztatu ahal izan zuten, hain zuzen ere, azken dekretuan adostutako neurriak betetzen zirela. Aitzitik, auzokideek nabarmendu zuten garbiketalanak oraindik ere gauez egiten zirela.

14. Aurkeztutako erreklamazioen ondorioz, 2012ko otsailaren 22an, lokalaren barruan sonografo bat instalatzea erabaki zen, bai lokalaren funtzionamendu normalean igortzen ziren soinu-balioak jasotzeko, bai balio horiek lizentziak baimendutako balio maximoak gainditzen zituzten ala ez zehazteko.



15. Aitzitik, **2012ko martxoaren 6ko alkatearen dekretu bidez**, ohartarazi zen jardueraren sustatzailea bi aldiz zitatu zela sonografoa jartzeko, baina ezin izan zela jarri lizentziaren titularrak ezezkoa eman zuelako.

Arrazoi horregatik, honako erabaki hauek hartu ziren:

- Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 106. artikuluari jarraikiz, 2012ko martxoaren 8an (ostirala), 10:30ean, udaleko zerbitzu teknikoko langileek udalaren sonografoa jarriko zutela lokalean, jardueraren funtzionamendu normalean ateratzen zituen zarataren balioak jasotzeko, eta, era horretan, balio horiek lizentziak baimendutako balio maximoak gainditzen zituzten ala ez zehazteko. Horrenbestez, lokalera bertaratzeko beharra jakinarazten zitzaion arduradunari.
- Aipatutako sonografoa lokalean geratuko zela instalatuta gutxienez hilabete batez eta gehienez sei hilabetez, gutxi gorabehera.
- Udalaren sonografoa zigilatu egingo zela, udaleko zerbitzu teknikoek bakarrik, ez beste inork, manipulatu ahal izateko.
- Udalaren sonografoak lokalean egon behar zuela, eta ezin zitekeela inolaz ere lekuz aldatu edota manipulatu, aurretiaz Udalari jakinarazi gabe. Gainera, ohartarazi zitzaion nolabaiteko kalterik jasango balu, haren konponketa-lanak lizentziaren titularraren kontura egingo litezkeela.

16. Aipatutako sonografoaren bidez gauzatutako jarraipenetik honako hau ondorioztatu zen:

"En la tabla anterior se han incluido únicamente los días en que se ha superado el nivel de 75 dB(A) de forma clara, hay varios días en que se ha superado el nivel de forma puntual y que no se puede considerar como una incidencia.

En locales con la limitación del nivel sonoro a 75 db(A) es muy fácil obtener registros con niveles superiores al de limitación dado que los clientes de bar generan un nivel de ruido superior simplemente hablando en voz alta.

Dado que el sistema de limitación actualmente instalado no permite saber nada acerca de si ha habido manipulaciones o desconexiones del mismo, no se puede afirmar con certeza si los niveles obtenidos corresponden al ruido de la gente en el bar o bien a que el limitador estuviera manipulado y/o desconectado del equipo de música en esos momentos y la música estuviera por encima de los 75 dB(A).



No obstante en el registro hay tres días (marcados en negrita en la tabla de datos), el 19 de enero de 2013, el 6 de enero de 2013 y el 1 de enero de 2013, que por su nivel sonoro 86,5 dB(A), 86.9 dE(A) y 86,9 dB(A) resulta muy dudoso creer que corresponden al ruido generado por la gente dentro del bar, pero como ya hemos dicho antes ante la falta de datos del limitador es imposible afirmarlo con certeza.

Se recomienda de forma encarecida la instalación de un sistema de limitador/registrador sonoro frecuencial el cual se programe con la curva de aislamiento a ruido aéreo del local con respecto a la vivienda más afectada, de forma que en caso de manipulación y/o desconexión del limitador se puedan saber con certeza dichas manipulaciones. Además este tipo de limitadores garantizan la mínima inmisión de ruido en la vivienda al realizar la limitación de forma frecuencia, cosa que actualmente no ocurre al tener una limitación global por tensión.

Horrenbestez, argi geratu zen gaintitu egiten zirela emandako lizentzian baimentzen ziren muga maximoak.

17. **2013ko urriaren 23an**, udaleko zerbitzu teknikoek beste ikuskapen-bisitaldi bat egin zuten, eta **soinu-iturri berri gisa** ordenagailu eramangarri bat zegoela ikusi ahal izan zuten, nahiz eta bisita egiteko momentuan ez zegoen martxan.
18. Lokalean egiaztatutako azken irregulartasunen aurrean, 2013ko urriaren 29an, ukitutako auzokideei zein lokalaren arduradunari jakinarazi zitzairen azaroaren 6an beste ikuskapen-bisitaldi bat egingo zela, bai ikus-entzunezko ekipamenduen mugak egiaztatzeko, bai jardueraren gaineko etxebizitzan neurketa sonometriko bat egiteko.

Dena den, ikuskapen hori bertan behera geratu zen kexaren sustatzaileak egun horretan bertan jakinarazi baitziren udalari aurreko asteburuan lapurretan egin ziotela bere lokalean, eta lapurreta horren ondorioz isolamendua kaltetuta geratu zela.

19. Gertatutako egintzen poderioz, udaleko teknikariak lokala ikuskatu zuen, eta honako hau zioen txostena eman zuen: *"tras la visita de inspección efectuada al local, se constata que, en efecto, como consecuencia del robo producido en el local se ha modificado el aislamiento en una zona que está directamente en contacto con la vivienda superior, lo que presumiblemente está produciendo molestias a los vecinos colindantes."*

Arrazoi hori dela-eta, Lasarte-Oriako Udalak, **2013ko azaroaren 12ko alkatearen dekretuaren bidez**, honako hauek errekeritu zituen:

- **Kautelazko neurri gisa zera ezarri** zuen: musika sortzeko gai zen edozein aparatu edota instalakuntza berehala erabilezin bihurtzea edo



- desaktibatzea, gutxienez lokaleko isolamendu akustikoak kalifikazio-txostenean jasotakoa betetzen zuela bermatu arte.
- Lokaleko arduraduna **ohartarazi** zuen 2013ko azaroaren 14an, 13:00etan, udaleko zerbitzu teknikoek lokaleko soinu-aparatuak edo -ekipamenduak zigitatuko zituztela.
 - **Jakinarazi zion, aurretik azaldutakoa bete ezean**, jarduera eten egingo zela denboraldi baterako, eta, ondorioz, lokala itxi egingo zela, gutxienez beharrezko isolamendu-maila berrezartzeko egin beharreko obrak gauzatu arte, eta baita eskatzen ziren neurriak betetzen zirela egiaztatu arte ere. Aldi berean, lokaleko aireko zarataren isolamendu-maila neurtzea eskatu zuen, zarata horren eraginak gehien jasaten zituen etxebizitzarekiko.

Aitzitik, titularrak etengabe hainbat ez betetze egin arren eta isolamendua apurtuta egoteak aldamenetako auzokideei eragindako eragozpenak areagotu ziezazkiekeen arren, Lasarte-Oriako Udalak ez zuen beharrezkotzat jo lokala kautelaz ixtea; hortaz, esku artean ditugun datuen arabera, jarduerak orain arte moduan jarraitzen du funtzionatzen.

20. Ondoren, **2013ko abenduaren 12ko alkatearen ebazpenean**, lehenik eta behin ukitutako auzokideek aurkeztutako arrazoibideak zein jardueraren arduradunak aurkeztu zituenak aztertu ziren:

Batetik, aipatutako ebazpenak zioenez, ukitutako auzokideek jardueraren arduradunari eskatu zioten intsonorizazio orokor bat egiteko beste proiektu bat aurkeztu zezala, eta ez isolamenduari buruzko konponketa-txosten huts bat. Horren guztiaren helburua zen indarrean dagoen legediak jardueralizentzia berreskuratu ahal izateko ezartzen dituen beharrezko neurri zuzentzaileak behin betiko betetzen zirela bermatzea. Aitzitik, tokiko erakundeak ez zituen aintzat hartu auzokideek aurkeztutako alegazioak. Hori egiteko arrazoa honakoa izan zen: hark (udalak), nahiz eta berriztatze-lanak ez izan orokorrak, arduradunari eskatu zion aurkeztu zezala lokalak kalifikazio-txostenean ezarritako neurriak betetzeko adinako isolamendu-maila zuela egiaztatzen zuen ziurtagiria, eta uste zuen nahikoa zela neurri hori ezartzearekin.

Bestetik, jardueraren arduradunak ezarrita zegoen kautelazko neurria indargabetzea eskatu zuen, lokala berriz ireki ahal izateko. Ziurtatu zuenez, konponketa-lanak bukatuta zeuden, laginak hartu ziren lokalean (ukitutako etxebizitzaren aldameneko gunean, hain zuzen), eta egiaztatuta zegoen gainerako intsonorizazioak zuen sistema eta material berekin egin zela intsonorizazio berria. Dena dela, honako hau argudiatu zuen: *"No ha sido posible realizar la medición ante la negativa de los propietarios del inmueble afectado, por lo que no puede dar cumplimiento a lo requerido por este Ayuntamiento"*. Udalak ez zituen interesdunaren alegazioak ere onartu.

Eta, ebazpen berean, honako hauek eskatu zituen:





- Jarduera denboraldi baterako eten zedila eta, ondorioz, lokala itxi zedila, jarduerak ezarri ziren neurri zuzentzaileak betetzen zituela egiaztatu arte.
- **Lokaleko arduraduna ohartarazi zuen**, behin neurketa eginda, udalari horren berri eman behar ziola, udaleko zerbitzu teknikoek lokala ikuskatu zezaten. Gainera, adierazi zuen udal-teknikariek frekuentziazko soinu-mugatzaile bat jarriko zutela, eta isolamendu-kurba berriarekin programatuko zutela, lokaleko aireko zarataren eraginak gehien jasaten zituen etxebizitzarekiko.
- **Aurretik azaldutakoa bete ezean** edota osorik bete ezean, Udalak zigor hertsatzaileak ezar zitzakeela, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrari jarraikiz.

21. Udalaren arkitekto teknikoak egindako txosten bati esker jakin dugu 2013ko abenduaren 16an jarduera horretara joan zirela, soinu-ekipoari zigilua kentzera, izan ere, gauez egingo dira eskatutako hots-neurketak.
22. **2013ko abenduaren 18an**, jardueraren titularrak aurretik eskatutako isolamendu akustikoaren zein soinu-neurketaren txostenak aurkeztu zituen udalean.

Txosten horretan nabarmentzen zen aireko zaratarekiko isolamendua DnT,A indizean 60 dB(A)-koa zela.

Soinu-immisioaren azterketako emaitzei buruz honako hau adierazten zen: *“el ensayo realizado en el piso inmediatamente superior, manteniendo un nivel de 75 dB(A) en el interior del Bar (...), se respetan los valores de inmisión establecidos en el informe de calificación.”*

Neurketa horretatik eskuratutako datuen aurrean, udaleko teknikariak aldeko txostena eman zuen, uste baitzuen jarduerak bete egiten zituela jardueralizentzian eskatzen ziren baldintzak.

23. **2013ko abenduaren 20an, Polizia Buruak honakoa zion txosten bat egin zuen:** *“a lo largo de la semana, se ha procedido a realizar una inspección a la actividad comprobando que el mencionado local está cerrado y que carece de actividad alguna.”*
24. Tras Jardueraren titularrak aurkeztutako azken neurketaren ondoren, udal teknikariak hiru txosten egin zituen, 139/13, 140/13 eta 141/13 zenbakidunak, **guztiak 2013ko abenduaren 23koak**. Horetan, **besteren artean, ondorengoak azpimarratu ziren:**
- *“Hacia las 14:15 horas del 16 de diciembre de 2013, se persona en (...), para desprecintar los aparatos audiovisuales existentes en el local, ya que por la noche se va a proceder a efectuar por palie del titular de la actividad, las mediciones requeridas en el Decreto del*



Alcaldía de fecha 12 de noviembre de 2013. Lo que se informa a los efectos oportunos."

- *"Teniendo en cuenta que la Documentación entregada es correcta y una vez comprobado por parte del Ayuntamiento del cumplimiento de la medida correctora 4º del informe de calificación sobre Calificación y Medidas Correctoras emitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa se deberá disponer un limitador sonoro frecuencial, el cual se programe con la nueva con la nueva curva de aislamiento que se ha entregado.*
- *"Primeramente se procede a comprobar la limitación de los equipos audiovisuales en la actividad; existen 6 altavoces en la actividad siendo la presión sonora de cada uno de ellos diferente. El altavoz situado al lado del televisor es el que da más nivel de sonido.*

Se enciende el televisor existente y se sintoniza una frecuencia de radio para poder medir con más facilidad, se efectúan tres medidas de este nivel comprobándose que la emisión está por debajo de los 75 dB(A) permitidos (72,91 dBA), por lo que se intenta alcanzar el nivel máximo permitido con otra fuente de sonido, para lo que se le introduce al equipo de sonido instalado en la actividad un cd walkman con ruido rosa así como un lpod con diferente música. Se comprueba que el lpod emite por el altavoz de máxima emisión alrededor de 75 dBA (74,37 dBA de promedio energético); en cambio el ruido rosa, debido a la potencia del cd walkman, emite por el altavoz de máxima emisión 72,28 dBA de promedio energético. Por lo que se procede a medir la inmisión en la vivienda con el nivel de sonido que emite el lpod.

Indicar que aunque la emisión del altavoz de máxima potencia sea 74,37 dB(A), el promedio energético de la totalidad de los altavoces del bar es de 72,94 dBA.

(...)

Teniendo en cuenta que la medida conectora 4ª del Informe sobre Calificación y Medidas Correctoras emitida por la Diputación Foral de Gipuzkoa, correspondiente a la licencia de la actividad, en el que dice que la insonorización de la totalidad del local a fin de que no se superasen los 40y 30 dBA en nivel continuo equivalente en Leq. 60-s, ni los 45 y 35 dBA medidos como L_{máx}. En los dormitorios, cocinas y salas de estar de las viviendas más próximas o en los locales contiguos, a partir de las 8 y 22 horas respectivamente.



Siendo cierto que la emisión de la actividad no tenía el mismo nivel *en todos los altavoces existentes, habiendo realizado un promedio energético de la emisión de la actividad, ésta no arrojaría un valor de 72,94 dBA, se entiende que los 27,7 dBA de inmisión en la vivienda podría incrementarse hasta 2,06 dBA, con lo que nos podría dar un valor máximo de inmisión en la vivienda de 29,76 dB(A).*

*Tanto los 27,7 dB(A) como los 29,76 dBA (si el nivel de emisión fuera 75 dBA), estarían dentro de los niveles requeridos en la medida correctora 4a del Informe sobre Calificación y Medidas Correctoras emitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que la actividad **cumple** con dicha medida correctora.*

*Teniendo en cuenta lo indicado en el apartado de las Consideraciones, la actividad **cumple** en cuanto al aislamiento exigido en la medida correctora 4º del Informe sobre Calificación y Medidas Correctoras emitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que la actividad cumple con dicha medida correctora."*

25. Ondorioz, 2013ko abenduaren 23ko alkatearen dekretu bidez, honako hauek eskatu ziren:

- 2013ko azaroaren 12ko alkatearen dekretu bidez ezarritako kautelazko neurria **baliogabetu** zedila, eskatzen zena betetzen zelako. Kautelazko neurri horrek zioen musika sortzeko gai zen edozein aparatu edota instalakuntza berehalaz erabiltzeko bihurtu edo desaktibatu behar zela. Hala ere, ohartarazten zen aurrerantzean beharrezko neurriak hartu beharko zituela, jazotakoak bezalako gertaerak berriro errepikatu ez zitezen.
- **Berriro irekitzeko aukera eskaintzen zitzaion**, kalifikazio-txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen zituenez.
- **Edonola ere**, titularrari jakinarazten zitzaion frekuentziazko soinu-mugatzailea lokaleko aireko zaratarekiko isolamendu-kurba berriarekin programatu behar zuela, Udalean aurkeztu zen enpresa espezializatuaren txostenak ezartzen zuenari jarraituta.

Dena dela, beste behin ere nabarmendu beharra dago, aipatutako kalifikazio-txosten horretan espresuki debekatzen zela irratia, telebista edo musika-haria ez zen beste soinu-aparaturik erabiltzea.

26. **2014ko urtarrilaren 27ko alkatearen dekretuaren bidez**, eta jardueraren titularrak soinu-mugei buruz eskatu zitzaion txostena aurkeztu zuenez, ulertu zen aurretik ezarrita zeuden betebeharrak betetzen zirela, eta jarduera bere egunean eman zen lizentziako baldintzetara doitzen zela.



27. Dena dela, ukitutako auzokideek aurkeztutako salaketa berrien aurrean, udalak eskatu zuen musika-ekipamenduetan jarritako erregistro-sonografikoko datuak iraultzea. Iraulketa horretatik honako hau ondorioztatzen zen:

"En los datos obtenidos entre las fechas del 1 de enero de 2014 hasta el día 3 de abril de 2014, se han detectado pasadas de nivel que superen los 75 dB(A)

De las pasadas de nivel se puede concluir que la mayoría pueden ser debidas al ruido generado por los clientes del bar ya que los niveles medios están en 82 dB (A).

Sin embargo, tal y como ya se ha indicado en el punto anterior, los días 22 de febrero y 23 de marzo los niveles obtenidos difícilmente se pueden achacar a las voces de los clientes. Lo más probable es que el limitador sonoro que debe controlar el nivel de la música a 75 dBA estuviera desconectado o puentado en esas dos fechas.

No se han detectado desconexiones de la red, ni manipulaciones del sensor de medida."

28. **2014ko ekainaren 2ko 042/14 udal txostenean**, honakoaz ohartarazi zen "En el informe de evaluación de datos del registrador sonoro entregado se señala que en varias fechas se superan los 75 dB(A) que el local tiene como nivel de límite sonoro para los equipos audiovisual. Sin embargo en la mayoría de estos casos las pasadas de nivel pueden ser debidas al ruido ocasionado por los clientes del bar, ya que resulta muy fácil superar los 75 dB(A) con los gritos y voces de la clientela, estos niveles a los que se refieren rondan los 82 dBA de medida.

Existen dos días (22 de febrero y 23 de marzo de 2014) en que los niveles obtenidos son bastante elevados y según señala el informe, difícilmente atribuibles al ruido ocasionado por los clientes del bar. Siendo estos niveles de 86,6 BA y 91,9 dB(A) respectivamente. Por lo que se concluye que los niveles obtenidos difícilmente se pueden achacar a las voces de los clientes, por lo que lo más probable es que el limitador sonoro pudiera haber sido manipulado (limitador desconectado o puentado).

"Analizando" lo que pudiera haber ocurrido los días en que se concluye que el registrador sonoro pudiera haberse manipulado, indicar que el 22 de febrero se jugó el partido de fútbol entre la Real Sociedad y el F.C. Barcelona (3-1) a las 20:00h y el 23 de marzo se jugó el Real Madrid vs F.C. Barcelona (3-4) a las 21:00 horas, coincidiendo las horas en que se detectan dichos niveles con las horas en que se transmitieron dichos encuentros deportivos, pudiendo ser que la gente gritara más de lo normal por las circunstancias concretas de dichos encuentros de fútbol.

No obstante, se le requerirá al titular de la actividad que entregue un volcado de su limitador sonoro para comprobar si realmente hubo o no alguna manipulación de dicho limitador.

29. Eskuratutako azken emaitzen aurrean, hilabete batzuk geroago, **2014ko ekainaren 17ko alkatearen dekretuaren bidez**, berriro eskatu zen jarritako erregistro sonografikoko datuak iraultzea, musika-ekipamenduek sortutako soinu-maila kontrolatzeko.
30. Aipatutako erregistro sonografikoaren iraulketatik lortutako emaitzatik, **2014ko urtarrilaren 9tik ekainaren 23ra arte**, honakoa ondorioztatu zen: *"Ninguno de los parámetros analizados presenta anomalías de funcionamiento así como los datos registrados se corresponden con las condiciones de programación del equipo, por lo que se determina que no se observa ninguna incidencia de funcionamiento o mal uso del sistema."*
31. Beraz, 2015eko otsailaren 2ko 014/15 udal txosten berrian honakoa adierazi zen *"El limitador sonoro instalado en la actividad funciona correctamente. Los días en los que se detectaron niveles altos en el bar se debieron probablemente a las voces de los clientes, teniendo en cuenta las emisiones deportivas que se dieron los días indicados."*
El uso del bar no fue el adecuado atendiendo al nivel de sonido que se detectó en la actividad, no obstante, ni el equipo de sonido ni el limitador fueron manipulados, por lo que teniendo en cuenta que se trata de una circunstancia puntual, se informará de dicha incidencia al titular de la actividad para que cuide en adelante dichos niveles que pueden darse en la misma."
32. 2015eko martxoaren 10eko Alkatetza Dekretuaren bitartez, Lasarte-Oriako Udalak berriz eskatu du jarduera horretako erregistro sonografikoa hustu dadila, lokaleko soinu-ekipoen maila ikuskatzeko.
33. Hala ere, gorago azaldutako jarduketak egin arren, kexagileak berriro dio jardueran ezarritako elementu zuzentzaileek ez dutela inolaz ere jarduerak eragiten dituen zarata-eragozpen larriak konpondu. Horren adierazle dira bai udalean behin eta berriz aurkeztutako salaketak, bai horren ondotik ukitutako auzokideak erakunde honetara hainbat alditan jo izana, jasaten dituzten eragozpen larriak nabarmentzeko.



Gogoetak

1. Gure esku-hartzearen helburua honakoa da: Lasarte-Oriako Udalak, aipatutako establezimenduak eragindako eragozpenak saiheste aldera, jarraitu duen jardunbidea aztertzea.
2. Ingurumenaren babesa ez da bukatzen egindako kalteak konpontzen direnean; aitzitik, zeregin horrek hura osatzen duten elementuen zainketa ere barne hartu behar du. Horregatik, kontuan izan behar da sailkatutako jarduerak kontrolatzeko eta legera egokitzeko herri-administrazioek duten betebeharra ez dela hautazko kontu hutsa, baizik eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien ahalmen publikoak direla, interes orokorra defendatzeko eta legeditik eratortzen diren betebeharrak bete daitezela bermatzeko.
3. Jardueraren lizentzia antolamendu-lizentzia bat da, edo, segidako traktukoa, hau da, tokiko aginteeek sailkatutako jarduerak ingurumenaren arloko araudira egokitzen direla kontrolatzea ez da gauzatzen lizentzia ematean; aitzitik, ezarritako neurri zuzentzaileen aldizkako kontrol- eta ikuskaritza-lanak egin behar izatea eskatzen du, eta, zoritxarrez, gehiegitan, ez da horrelakorik gertatzen.

Hala, horrelako lizentziek interes publikoa babestera bideratutako lotura tinkoa sortzen dutela esan daiteke, baimendutako jarduera baliatzean gertatu daitezkeen gorabeheren aurrean.

Zentzu horretan, argi geratu behar du jarduerak beti bete behar duela interes publikoko eskakizunetara egokitzeko baldintza inplizitua.

4. Ingurumenaren kontrolerako araudia saiatu egiten da jarduera sailkatuen funtzionamenduak kaltetu ditzakeen interes kontrajarriak bateratzen. Horrela, jarduera horien ezarpena prozedura jakin bat izapidetzearekin lotuta dago, neurri eta muga multzo bat hartuko dituen, eragin ditzaketen kalteak saihesteko asmoz.
5. Nolanahi ere, kexaren arrazoi nagusiarri helduz (lokaletik datozen zarata-eragozpen larriak), Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretuak, ekainaren 11koak, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren jarduera nekagarriei, osasungaitzei, kaltegarriei eta arriskutsuei aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoak ontzat ematen dituenak, aitortzen du mota horretako jardueren funtzionamendu egokia bermatzeko honako baldintza hauek bete behar direla: batetik, **intsonorizazio-proiektu bat aurkeztea**, eta, bestetik, ingurumenaren araudian ezarrita dauden soinu-immisioko parametroak ez gainditzea.
6. **Horrenbestez, Dekretu horrek** establezimendu horiek bete behar duten **baldintza tekniko** gisa hauxe eskatzen du: **aireko zaratarekiko gutxieneko isolamendu akustikoa**, lokalean sortzen den soinu-presioak ezarrita dauden



legezko soinu-parametroak gainditu ez ditzan, airez zein egituraren bidez; hau da, Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretuan jasota daudenak *“Nolanahi ere, eta berarizko udal-araupidetzaren kaltetan gabe, etzanguetan, sukaldeetan eta egonguetan ez dira gaueko 10ak arte 40db(A) eta goizeko zortziak arte 30 dB(A) gaindituko, hots-maila bereango minutu osoan Lek. baliokidetan neurketa, ez eta gehieneko unetan, hurrenez-hurren, goizeko 8etatik eta gaueko 10etatik hasita, 45 eta 55 dB(A) ere.”* kalifikazio-txostenak berak jasotzen duen moduan.

Zentzu horretan, Aginduak berak 1. kapituluko 3.2.4. atalean honako hau xedatzen du: *“Musika-apailuz irratia, telebista-apiluak eta musika-haria izan ditzaten ekintzapidetan, kalkuloak tegiaren ezein tokitan 75 dB(A) daudela eginda izango dituen zaratagabetze-egitasmo bat aukeztu beharrezkoa izango da, tegian ate bikoitza ez jarri behar izateko lurlean lotzea hotsari dagokionean maila horretantxe eginez.”*

Atal horrexetan bertan, berariaz adierazten da aipaturiko musika-aparatuez bestelakoak dituzten jarduerak, intsonorizazio proiekturako kalkuluak egitean, lokal barruan gutxienez 90 dB(A)-ko isolamendua erabiliko dutela.

Bi kasu horietan, araudiak zera zehazten du: *“Zaratagabetze-egitasmoan tegiaren barruan sortutako zarataren maila, horma-hezurren, hormen eta horrelakoen hots-iresmena, gai jabalgarrien hots-iresmena, guztizko hots-zurrupamena eta jabalpen-neurria zehaztuko dira, dagozkien kalkuloekin.”*

7. Ondorioz, arestian ezarritakoa betetze aldera eta, aipatutako foru-txostenak azaltzen duenari jarraiki, adierazi beharrezkoa da, orokorrean, Foru Aldundiek eskatu ohi dutela mota horretako lokalek gutxienez 60 dB(A)-ko isolamendu akustikoa izatea aireko zaratarekiko (telebista, irratia edo musika-haria izan eta musika-ekipamendurik edo bozgorailu askarik ez dutenek); hau da, barruan gehienez sortzen den zaratak 75 dB(A)-koa izan behar du.

Soinua egiteko beste gailuren bat erabiltzen bada, lehen aipatutakoez bestelakoa dena, isolamendua zabaldu egiten da, gutxienez 65 dB(A)-raino.

Hala eta guztiz ere, neurketetan behar bezala bermatuta geratu den moduan, jarduerak 60 dB(A)-ko isolamendu akustikoa besterik ez du aireko zaratarekiko.

8. Ondorioz, erreferentziatzko establezimenduak daukan isolamendu-maila kontuan hartuta, bakarrik erabil daitezke aurretiaz bere kalifikazio-txostenean baimendutako ekipamenduak.

Aurretiaz baimendu ziren aparatuez bestelakoak diren soinu-aparatuak baimendu ahal izateko, lokalaren isolamendu akustikoa 65 dB(A)-raino heldu arte sendotu beharko da. Hori guztia, lokalean sortzen den soinu-presioak ezarrita dauden legezko soinu-parametroak gainditu ez ditzan, airez zein



egituraren bidez; hau da, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan jasota daudenak.

9. Azaldutako aurrekarietan behar bezala bermatuta geratu den moduan, musika-ekipamendua ez da zarata-eragozpenak sortu ditzakeen gauza bakarra; izan ere, jarduera horietan ohikoak diren beste soinu-iturri batzuek ere, kasu honetan gertatzen den moduan, kalte larriak eragin ditzakete: besteak beste, bezeroen arteko elkarrizketek, materiala arrastaka eramateak edota lokal horietan ezartzen diren makinek.
10. Hortaz, inolaz ere ezin dugu onartu neurri zuzentzaile osagarri gisa nahitaezko baimena ez duten lokaleko soinu-ekipamenduetan 75 dB(A)-ko soinu-mugatzailea ezartzea, ezta 72 dB(A)-ko ere. Izan ere, nahitaez bete beharreko jardueraren kalifikazio-txostenak azaltzen duen moduan, berariaz debekatzen da edozein musika aparatu erabiltzea, irratia, telebista eta musika-haria izan ezik.
11. Halako jarduera motek ezin dute inolaz ere kalifikatu zen memorian agertzen ez den elementu edo ekipamendu osagarri jarri edo, hala badagokio, instalazioa legezkatzen den arte; hau da, lokalari jarduera zabaltzeko lizentzia ematen zaion arte –lizentzia horrek berariaz baimenduko du musika-aparatuaren erabilera– eta lokalari jarritako neurri zuzentzaile berriak eraginkorrak direla egiaztatzen den arte.
12. Potentzia-mugatzaileak musika-ekipamenduetan ezartzea nahitaez bete beharreko neurri zuzentzaile gisa hartzen da, jarduera gogaikarriei, osasungaitzei, kaltegarriei eta arriskutsuei aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoak onetsi zituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan zehaztutakoaren arabera.
13. Askotan egiaztatu den moduan, jardueren titularrek erraz manipula ditzakete potentzia-mugatzaileak, baita behar bezala ainguratuta eta zigilatuta daudenak ordezkatu ere.

Hori dela-eta, lokal horien aldamenetako etxebizitzetan lortutako igorpen-balioak eraginkortasunez egiaztatze aldera, ezinbestekoa da auzokideen salaketa jaso ondoren, behar bezalako neurketak eta egiaztapenak egitea, ahal izanez gero jarduera errendimendu osoan dagoenean, bereziki horiek gauez gertatzen direnean. Hala egin ezean, jardueraren titularrei ezin izango zaie eskatu beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ditzatela, jardueraren funtzionamenduak hori instalatu eta baimendu ahal izateko bete behar izan ziren soinuen igorpen-mailak gainditu ez ditzan.

14. Dena dela, esku artean dugun kasuari dagokionez, nahiz eta udaletik jarraipena egin zaion, ez dirudi aurretik azaldutakoa bete denik, baizik eta titulartasunean izandako aldaketaz geroztik, aurretiaz baimendutako aparatuez bestelakoak diren soinu-aparatuak erabili daitezela uzten da,





Udaletik nahitaezko baimena eskuratu gabe eta beharrezko baldintza teknikoak bete gabe.

15. Beste alde batetik, azpimarratu behar da Lasarte-Oriako Udalak ezin dezakeela argudiatu jakinaren gainean geratu denik jabe berriarenganako titulartasunaren eskualdaketaz, bere egunean eman zen irekiera-lizentzian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu gabe.

Gai horri buruz adierazi behar dugu duela hogeit hamar urte baino gehiagotik jurisprudenzia behin eta berriro zehazten ari dela irekiera-lizentziak **egintza arautuak direla**, non herritarrari ordenamendu juridikoaren mugen barruan dagoen zerbait egiteko eskubidea aitortzen zaion, lizentzia horiek eskuz aldatu baitaitezke, batez ere titulartasunean aldaketak gertatzen direnean izena moldatzegatik. Hori gertatzen da lehendabiziko lizentziak ematean, ez zegoelako pertsonen baldintzak aztertzekeo beharrik, lizentzia errealak eta objektiboak baitziren, haien eskualdatzea eragotzi dezaketen arrazoiren baten pean ez zeudenak, 1955eko ekainaren 17ko Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudiko 13. artikuluan araututakoaren arabera. (Beste batzuen artean 1944/4999 artikulua).

Dena dela, gaineratu beharra daukagu aipatutako Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudiko 13. artikulua honakoa agintzen duela: obra, instalakuntza edota zerbitzu bateko baldintzei dagozkien lizentziak eskuz aldatu daitezke, baldintza bakarra izanik titular berriari egindako transferentzia idatziz jakinaraztea udalbatzari. Araudi horren 15.1. artikulua zehazten du lizentzia horiek indarrean egongo direla obraren edota instalakuntzaren baldintzak irauten duten bitartean. Araudi bereko 16. artikulua burutzen du lizentzia horien arauketak. Manu horrek zehazten du lizentzia horiek ondorerik gabe geratuko direla, baldin eta lizentzia horiek eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen ez badituzte. Era berean, baliogabetuak izan daitezke, lizentzia emateko arrazoi izan ziren inguruabarrak desagertzen direnean, edota beste inguruabar batzuk sortzen direnean, hasieran azaldu izan balira lizentziari ezezkia ematea eragingo luketenak. Baliogabetu ahal izango dira, baita ere, lizentziak ematean okerren bat egin izatekotan.

Hartara, Auzitegi Gorenak garai hartan jadanik uste izan zuen jardura bateko titulartasunaren eskualdaketak berekin dakarrela irekiera-lizentzia berri baten sorrera. Erabakigarritzat jo zuen agintari eskudunak egiaztatzea eskuz aldatuko den lizentziaren babespean dagoen egoerak beharrezko legezko baldintzak mantentzen dituela. Ikusi Auzitegi Gorenaren Epaiak: 1983ko otsailaren 23koa (Ar. 938) eta 1986ko otsailaren 28koa (Ar. 1626).

Era berean, Auzitegi Gorenaren 1996ko otsailaren 13ko Epaiak (Ar. 1120) honako hau zehaztu zuen gaiaren gainean:

“(...) los ayuntamientos, conforme entre otros, a lo dispuesto en el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales y en el Reglamento



de Actividades Molestas, tienen potestad para vigilar e imponer esa correspondencia entre la licencia y la actividad ejercida y para prohibir actividades ejercidas sin licencia, cual es en buena medida la ejercida de forma distinta a la autorizada...”.

16. Horrenbestez, argi geratzen da toki-erakunde horrek ezin dezakeela inolaz ere baimendu aipatutako jarduerak martxan jarraitzea, bere garaian emandako lizentziako betebeharrak betetzen direla egiaztatu gabe eta, hala badagokio, titular berriari dagozkion irekiera-lizentziak izapidetu gabe.
17. Egia da Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra **aldatu** ostean, **mota horretako jarduerak arautzean** salbuetsi egiten dela nahitaezkoa den irekiera-lizentzia. Aipatutako lege hori beste honen bidez aldatu zen: *7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa, joan zen urteko maiatzaren 1etik indarrean dagoena (apirilaren 30eko EHAO).*

Hala ere, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak, 55. artikuluan, agintzen du jarduera mota horiek administrazio-lizentziaren araubidera edo aurretiko jakinarazpenaren araubidera lotuta daudela, abian jartzeko beharrezko betekizun gisa.

Arau horrek baimen bikoitz bat ezartzen du jarduera mota horientzat: batetik, hasiera bateko jarduera-lizentzia, non ingurumen-kalitate egoki bat bermatuko duten neurri zuzentzaileak finkatzen diren; eta, bestetik, sustatzailearen ondoko jakinarazpen bat, neurri horiek eraginkortasunez betetzen direla ziurtatzen duena.

Hala, 59. artikulua hau agintzen du: foru-erakundeek jarduera legeztatzeko prozeduran edo, hala badagokio, jarduera handitu ondoren, eman behar duten kalifikazio-txostena **loteslea izango dela** udal-agintarientzat, bai jardueren lizentzia ematearen aurkakoa denean, bai neurri zuzentzaileak ezartzeko betebeharra zehazten duenean.

Era berean, 59. bis artikulua hau zehazten du: lizentziak ondorerik gabe geratuko dira, baldin eta lizentzia hori eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen ez badituzte edo, hala badagokio, **ofizioz aldatu beharko dira**, baldin eta egiaztatzen bada ezarritako neurri zuzentzaileak ez direla nahikoak, ingurumenari, pertsonari edo beren ondasunei eragin dakiekeen kaltearekin lotuta.

18. Horrenbestez, ingurumen-kontrola ez da mugatzen jardueraren hasieran emandako baimenari, baizik eta egoki garatzeko, beharrezkoa da jarraipen bat egitea eta aurretik zehaztutako kalitate-helburuen gaineko emaitza eskatzea.
19. Aldi berean, aintzat izan behar da errespetatu egin behar direla urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari

buruzkoaren, I. Eranskinean ezartzen diren zarataren kalitate akustikoko helburuak, bai dagoeneko egon badauden eremu urbanizatueterako, bai etxebizitza- eta bizitegi-erabileretara bideratutako eraikinen barruko aldeko esparru bizigarrietarako.

20. Esku artean dugun kexa honetan gertatzen diren bezalako gertaerak saiheste aldera, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak, 64. artikuluan, tokiko administrazioei esleitzen dizkie instalazio-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak edo, hala badagokio, instalazioak egoki funtzionatzen dutela bermatzeko, eta hirugarrengeoi eragozpenak eta arriskuak saihesteko ezar zitezkeen neurriak kontrolatzeko eta ikuskatzeko funtzioak. Edonola ere, alkateak, irekitako zehapen-espeditenteei kalterik eragin gabe, adierazitako akatsak epe jakin batean zuzentzeko eskatuko dio jardueraren titularrari eta, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, epe horrek ezin izango du 6 hilabetekoa baino luzeagoa izan.
21. Hala ere, ditugun datuetatik erakunde honek ondorioztatzen du, nahiz eta Lasarte-Oriako udalak neurri batzuk hartu dituen aipatutako jardueratik eratorritako irregulartasunak zuzentzen saiatzeko asmoz, neurri horiek ez direla aski izan, ezta eraginkorrak ere, udal-erakunde horrek aipatutako jarduerarekiko gauzatu behar dituen jarduketa eta jarraipena justifikatzeko. Kontuan hartu behar da inolaz ere ezin daitekeela onartu aipatutako jarduera duela 5 urte baino gehiagotik martxan egotea aurretik eman zen lizentziako baldintzak hertsiki bete gabe edo, hala badagokio, proiektu berri bat aurkeztu eta dagozkion udal-izapideak burutu gabe. Izapide horien bidez, instalatutako elementu berrien egokitasuna bermatuko litzateke, baita aipatutako lokalak modu egokian funtzionatu dezala ziurtatzen duten eskatutako neurri zuzentzaile osagarrien egokitasuna ere.

Horrez gain, jardueraren sustatzaileak etengabe hainbat ez betetze egin arren, udalak ez du inolako zehapen-espeditentirik ireki, ezta ingurumenaren arloko araudiak jardueraren sustatzaileak arauak hausteari utzi diezaion eskaintzen duen beste neurriren bat hartu ere. Aitzitik, ukitutako auzokideek behin eta berriz aurkeztutako salaketen eraginez, egin duen gauza bakarra da kasu bakoitzean aurkitu diren irregulartasunak zuzendu egin behar direla gogoraraztea. Baina ez die inolako jarraipenik egin zuzenketa horiei, betetzen ziren ala ez gainbegiratzeko asmoz.

22. Bistakoa da establezimendu mota horiek, baldin eta beren jarduera ez bada araudi tekniko-juridiko egoki baten mendean jartzen, gatazka larria sor dezaketela eta, egiatan, sortzen dutela beren titularren negozioa jardueraren barruan egiteko interes partikularren eta interes publiko orokorraren artean. Hau da, establezimendu horien inguruan bizi diren auzokideek intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea dute, eta ezin da beren lasaitasuna aztoratu, lokal horiek eragindako eragozpenak direla eta.

23. Uler dezakegu establezimendu bateko isolamendu akustikoko arazoak konpontzen diren bitartean, eta zehapen-espeditenteak irekitzeari kalterik egin gabe, salbuespenezko beste neurri batzuk hartzea, ondoko higiezinetakoz auzokideak ez eragozteko helburua dutenak. Gainera, jakin badakigu neurri mota horiek jarduera mota horiek egiten dituzten pertsonentzako proportzionaltasun teknikoko eta ekonomikoko irizpideen arabera hartu behar direla. Hala ere, aldi baterako hartu diren edo hartu beharko lirerateen erabakiak behin betikoak izan daitezke, kasu honetan gertatu den bezala, eta gainera, are larriagoa dena, erabaki horiek ez dute balio izan auzokideek indarreko legediak ezarritako mugak baino soinu-immisio maila handiagoak pairatu behar izana saihesteko.
24. Kasu honetan gertatutako egoerak ikusita, alde batetik, ondorioztatu da lokaleko arduradunak erresistentzia nabarmena agertu duela jarduera legeztatzeari dagokionez; bestetik, udal-jarduera falta ere ondorioztatu da, jarduera behin betiko arautzeko eskatzeari dagokionez. Egoera horrek, argi eta garbi, lizentzien teknikak zehaztu duen prebentzio printzipioa hausten du.
25. Tokiko erakundeek ezin dute inolaz ere ingurumenerako kaltegarriak diren egoeretatik aldendu edo urrundu, pertsona edo ondasun zehatz batzuen kalteak eragitea itxaronez, ez eta espeditentea luzatu ere, lokaleko arduradunak jarduera legedira moldatuko duela itxaropen eta oinarri gisa hartuz.
26. Ezin da ukatu instalazioak zaindu eta kontrolatzeko jarduerak betetzea zaila dela; ildo beretik, gure ustez, oreka bilatu behar da merkataritza eta zerbitzu jarduera oparo bat martxan izatearen eta bizilagunen eskubideen artean, hau da, atseden hartzeko eskubidea eta kalitatezko ingurumenaz gozatzeko eskubidea, zarata eragozpenik gabea.
27. Nolanahi ere, Lasarte-Oriako Udalak beharrezko errekurtsioak eta prozedurak bideratu behar ditu establezimendu horretatik gertu bizi diren pertsonen eskubideak zuzen betetzea lortzeko. Izan ere, jarduerak ezin du bizilagunen lasaitasunean eragozpenik sorrarazi.
28. Auzitegi Konstituzionalak eman duen doktrina berrienak zehaztu du hemen hizpide dugun jarduerak eragindako ingurumen-kalteen gainean Administrazioak izan duen tolerantziak eta adostasunak, kalteek pertsonen osasuna arriskuan jartzen ez badute ere, osotasun fisiko eta moralerako oinarritzko eskubideak (15. artikulua CE), intimitate pertsonala eta familiarra (18.1. artikulua CE) eta etxearen ukiezintasuna (18.2. artikulua CE) kaltetzea dakarrela.

Horrez gain, hauxe ere zehaztu du: *“la finalidad de las medidas provisionales o cautelares no sólo es asegurar la eficacia de la sanción que pudiera recaer, sino también evitar el mantenimiento de los efectos de la infracción o, si se prefiere, que persista la situación lesiva denunciada.”*



Horregatik, tokiko erakundeek eskubide horiei kalterik ez eragitea bermatzeko beharrezko babes-neurriak hartu behar dituzte.

29. Azkenik, gogora ekarri behar dugu jarduerak otsailaren 11ko 14/2014 Dekretuak ezarritako itxiera-orduak bete behar dituela. Dekretu horrek hirugarren aldiz aldatzen du abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, erakunde hau sortu eta arautzekoak, 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikuluari jarraiki, Lasarte-Oriako Udalak **dagozkion neurriak hartu behar ditu aipatutako jarduerak ondo funtzionatzen duela behin betikoz bermatzeko**; batez ere honako hauei dagokienez: **lokalarren isolamendu akustikoari, lokalean martxan dabiltzan soinu-ekipamendu irregularrei eta itxiera-ordua betetzeari.**

Horrenbestez, eragindako zarata-eragozpenak zuzentzeko, honako aukeretakoren bat hartu beharko da:

- Intsonorizazioa hobetzen ez den bitartean, kalifikazio-txostenean baimendutako soinu-aparatuez bestelakoak direnak kendu beharko dira; hortaz, irratia, telebista eta musika-haria besterik ezin izango dira erabili, 75 dB(A)-ra mugatuta.
- Aurretik baimendutako soinu-aparatuez bestelakoak diren aparatuak baimenduz gero, lokalarren isolamendu akustikoa sendotu beharko da 65 dB(A)-ra iritsi arte.

Kasu batean zein bestean, lokalean sortzen den soinu-presioak ezarrita dauden legezko soinu-parametroak, airez zein egituraren bidez, gainditu ez ditzala bermatu behar da.

Gainera, jardueran beste arau-hausteren bat antzemanaz gero, Lasarte-Oriako Udalak dagozkion zehapen-espeditenteak ireki beharko ditu edota ingurumenaren arloko araudiak arautzen dituen beste edozein neurri hartu. Hori guztia, kaltetutako azukideek pairatzen dituzten eragozpenei behin betiko irtenbidea bilatzeko.

